

Azkuek Mezkiritzen bilduriko kantak

Orreaga Ibarra Murillo

Recopilamos y analizamos desde el punto de vista dialectal y etnográfico varias cancioncillas recopiladas por el vascólogo Resurrección María de Azkue en Mezkiritz (Valle de Erro). Intentamos discernir hasta qué punto son auténticos los rasgos dialectales y tratamos de desentrañar algunas de las claves de su vida diaria a través de las mismas.

0. Sarrera

Resurrección María de Azkuek Mezkiritzen (Nafarroa-Erroibar) bilduriko kanta batzuk ditugu aztergai oraingoan. Herriko apaiz bati esker¹ nire eskuetara heldu ziren, Jose Luis Ansorenak emanak. Bera ari da transkribaketa lanak egiten, eta, niri herriko hauek helarazi zizkidan. Berak zioskunez, mila baino gehiago dira argitaratu gabe daudenak eta denak Euskaltzaindiako artxiboan daude, argia ikusteko zain. Azkueren “Nuevo Cancionero” delakoan argitaratzea nahiko luke Ansorenak.

Hauetako batzuen letra eta notak arkatzez idatziak daude, bertze batzuek letra makinatua dute eta notak, eta azken batzuk argitaratutakoen kopiak dira. Guk musikarik gabe ekarri ditugu hona, eta bertso modura lerrokatu ditugu, guri geuri eduki linguistikoa -eta etnografikoa nahi bada- interesatzen zaizkigulako, eta ez melodia.

Duela urte batzuk Erroibarren agerturiko bertze batzuk argitaratu nituen (Ibarra 2000: 263-265), baina, haiek Erroibarko herri guzietakoak ziren. Orain, ordean, Mezkitziko hauek dakartzagu. Horrela dio José Luis Ansorenak paper hauetan egiten duen sarreran, letra ezanean paratuko ditut bere transkribapen a zehatza baita:

1. Eker mila Iñaki Castellori eta Luis Saragüeta apaizari, haien bidez eskuratu bainituen kanta hauek.

Cuando en 1912 se rumoreó que las cuatro Diputaciones vascas proyectaban un concurso de colecciones de melodías populares vascas, Resurrección María de Azkue (Lekeitio 1864-1951) organizó su vida, para poder dedicarse a correrías folklóricas.

En el verano de 1913 recorrió pueblos del valle de Erro: Biskarret, Aurizperri, Geren-diain y Mezkiritz. En todos ellos recogió varias melodías. Las recogidas en Mezkiritz son:

		<i>Informante</i>
<i>E</i>	<i>Etzite yin</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>E</i>	<i>Gabaz zegoen txit argi</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Gizon abila dute</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>E</i>	<i>Jaun erretora</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>I</i>	<i>San Migelen sartzeko</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>E</i>	<i>Sant Urbanen bezpera</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Deskalabratua naiz</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Apeza degu</i>	<i>Antonio Loizu</i>
<i>E</i>	<i>Auxen duk arno yona</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Etzitela yin</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Nork nai zer nai</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*E</i>	<i>Akerra burdu</i>	<i>Josefa Zalba</i>
<i>*I</i>	<i>Goizean goizik meza entzun</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Oilo eta oilasko</i>	<i>Antonio Errea</i>
<i>*I</i>	<i>Ogi zerutik (moderno)</i>	<i>Martina Reta y Marcelina Zaragüeta</i>
<i>*I</i>	<i>Orai kanta berriak</i>	<i>Graciana Errea</i>
<i>E</i>	<i>Ote da mundu ontan</i>	<i>(canción del judío errante) Graciana Errea</i>
Nik * izartxoarekin markatu ditut edizio honetan bildu ditugunak.		

Berriemaleei buruzko datu batzuk erdietsi ahal izan ditut nire gurasoen bidez. Herrikoak ziren denak, eta horrek frogatzen du, behintzat informazioan ez dagoela kanpotik etorritako eraginik, Azkuerena izan ezik, eta hori ez da gutiena. Honatx ba berriemaileei buruzko oharrak: Antonio Loizu, Mezkiritzko tabernaria izan zen, herrian taberna izan zuena urte batzuetan.

Antonio Errea: *Maistrozarrañekoa*.

Martina Reta: *Arabe* deitutako etxekoa.

Marcelina Zaragüeta: *Estanko* etxekoa.

Graciana Errea: *Adamenekoa*.

Irakur ditzagun kantak ba, eta gero, zenbait kontu jakingarri azalduko ditut:

1. Kantak

*Goizean goizik-Josefa Zalba (Mezkiritz. Erro)*²

Goizean goizik meza entzun eta andik jo nuen Baigorri
atera zekidan guarda bi nere bihotzaren galgarri.

*Ogi zerutik*³- *Martina Reta (Mezkiritz)*

Ogi zerutik ekarria
zu zera gure poz guzia.
Bildotz saildua ara emen
munduko gaitzak kentzearren
sagrarioan non dagoen
lurra zeruaz bat egiten
lurra zeruaz bat egiten.

*Orai kanta berriak - Graciana Errea*⁴

Orai kanta berriak nik orai paratu
amar mandamentuak nola paratu
lemesikoa bear da Jaungoikoa amatu
lagun projimoa ere beti estima.
Bigarren mandamentuan juramentu guti
nai duena erratera (minari?)⁵ ez utzi,
eztago lan? Gorretan diferentzia guti
zerurat igan edo ifernuara jautsi.

2. Eskuz idatzia agertzen da; 12 zenbakia du, parentesien artean (*Mezkir- Erro*) agertzen da partitura-
ren gainean, zati batzuetan ezabatua agertzen da, bi lerroko partitura. Kanta hau argitaratu gabe dago.

3. Eskuz idatzia agertzen da honako hau: *Martina Reta. Moderno. Marcelina Zaragueta: dos de Mezki-
ritze*. 14. zenbakia, argitaratu gabe dago. Ohar bedi, bidenabar, zenbat zalantza erakusten duen Mezkiritz
toponimoak, *Mezkiriz* idazten du Ansorenak, baina Azkuek *Mezkiritze*, eta *Mezkir*. laburpena dakartza.

4. Eskuz idatzia. Lau lerroko partitura gainean honako izenburua dauka: *Graciana Errea (Mezkiritze-
Erro)* 15. Partitura eskuz. Argitaratu gabe dago, zati batzuetan ezabatua.

5. Galdera hau eta hurrengoa Ansorenak ezarritako galdera ikurrak dira.

*Gizon abila dute - Antonio Errea (Mezkiritz)*⁶

Gizon abila dute jaun oyek barbera
iduritzen zayotela Jaungoikoa bera
guardia igorri dute San Paul gainera
pestea itzul dezala Erroibar aldera.
2º Guardia fier daukate Artzibar aldetik
Juan Simon deitzen dek bat Luzarreta beretik.
Lauretan hogeit urte bizkarrean baitik
pestea aisa joanen da aren istapetik..

*Apeza degu -Antonio Loizu (Mezkiritz)*⁷

Apeza degu Londresen
sendabelarren ekartzen,
orrek ez pazuen pentsatzen
gu nola eginen dantzatzen
oi, ai penetan
bizi naiz mundu onetan.
Oi, ai, egia singula yabe Maria.

Kaponak daude erretzen
oilaskoak frijitzen,
orrek ez pazuen pentsatzen
gu nola eginen dantzatzen oi,
ai penetan
bizi naiz mundu onetan.

6. Makinaz idatziriko letra. Ondoan haxe idatzi du Ansorenak transkribatzerakoan: 3 zenbakia, ondoan, “*Narrativa del tiempo de la peste...orain 150 bat urte gertatu zan*”. Eta kantaren bukaeran, parentesi artean haxe idazten du Ansorenak: (*Donostiatik ekarri emen zuten santu aren txapela ta orduan asi omen zan izurria gibeleratsen*).

(Partitura lau lerrokoa da). Argitaragabea.

7. Makinaz idatziriko letra. Argitaragabea da, Ansorenak dioenez. 7. zenbakia agertzen da ezkerrean boligrafoz idatzirik. Allegro, 6/8 konpasa du.

*Etzite yin -Antonio Errea (Mezkiritz)*⁸

Eztitela jin egunez bihar zato igande arratsaldean
 aitamak izanen bezperetan
 bertze aurrideak aziendetan
 nerau egoin naiz bakarrikan
 egon zite beti ortan
 trufa etziten nere baitan
 plazan dituzu pilotariak
 jokarieki partzuer nuzu
 nere jitea neke duzu.

*Nornayek zer- Antonio Loizu (Mezkiritz)*⁹

Nor nayek zer nai erranikan ere
 Bidarraitarra nuzu baita nai ere
 etxeke seme ona segurki ala ere
 naiz obeagokorik errian bada ere
 gara bortz aurride
 enekin sei gide
 oro adiskide dotearen gainean
 samurturen ez kire.

*Oilo eta oilasko- Josefa Zalba (Mezkiritz)*¹⁰

Oilo eta oilasko oilanda gizena
 ez tituela jaten azken dituenak
 janarik obenak
 ardo gozoenak
 amenik obenak
 abilak dituztela iresten denak.

8. Allegretto, 6/8 konpasa du. Makinaz idatziriko letra, gaineko aldean hauxe agertzen da idatzirik: *Antonio Errea (Mezkiritz) vèase: Etzite yin C85.*

Nik argitaratutakoa (cf. Ibarra 2000: 365) ez da erabat berdina, honen aldaera bat baizik. Lehenengo parte berriz, bai. Eskuinaldean 9. zenbakia idatzirik agertzen da, Ansorenaren zenbakuntza, itxura denez.

9. Kanta honek makinaz idatziriko letra du, eta oharrak arkatzez; 10. zenbakia du ezkerraldean idatzirik. 2/4 konpasa du. Goiko partean *Antonio Loizu (Mezkiritz)* jartzen du. Eta lehen konpasean *Var...* idatzirik agertzen da lerroaren hasieran.

10. Ezkerraldean 13. zenbakia. Makinaz idatziriko letra du kanta honek. Ezkerraldean *Allegretto*, 2/4 konpasa, eta eskuinaldean *Josefa Zalba (Mezkiritz)*.

*Zorabiatua naiz (Deskalabratua naiz)*¹¹

Zorabiatua naiz munduko bizitzan
kantuz azalduko dut zer moduz gabilzan
Andre y eder batekin esposatu nintzan
egun on bat arekin eztezaket izan
nere begietarat ona agertu zan.

*Akerra*¹²

Akerra burdu burdu,
errapian llo llo,
adarretan osto,
pin-pin larrera.

*El chivo burdu burdu,
Bajo la ubre cizaña
en los cuernos hojas
pin pin al prado.*

Su melodía es el núm. 8. Lo aprendí en Mezkititz (Erro), de Josefa Zalba.

2. Iruzkin linguistikoa

Lehenik eta behin azpimarratu behar da Azkueren “joera garbizalea”, bere lan guztietan agertzen dena. Jakina da biltzaile gisa ez zela beti leialki aritzen. Hori dela eta, hainbat egokitzapen egiteko ohitura zuen, eta horregatik, dialektologiaren ikuspuntutik ez dira erabat fidagarriak izaten berak bilduriko material guztiak.

Bertzaldetik, kanten azterketa egiterakoan, argi ikusten dugu errimak eta neurketak baldintza ditzaketela anitzetan hizkuntza ezaugarriak, eta honenbertzez, ez dela bakar bakarrik hizkuntza erabat naturala.

Nik liburuan azerturiko kantetan (Ibarra 2000: 263, 264, 265), *degu*, *ondo* eta horrelakoak eriden ditut, hemen erabat arrotzak direnak. Bertzaldetik, egun dakartzadan

11. Kanta hau argitaratu dago 71 zenbakiarekin. Behean hauxe idatzirik agertzen da: *De Antonio Errea, de Mezkititze (Erroibar, AN). Aunque tiene la misma letra que la canción siguiente, la música en una y otra es completamente distinta.*

12. Kanta hau argitaratu dago; eskuinaldean 6 zenbakia du. Goiko aldean Andante mosso, 2/4 konpasarekin. Beheko aldean *Akerra burdu burdu* (AN) idatzirik dago. Azkueren eranskinean: *Burdu*: cf. Burdun. *Burdun-burdun*: saltón (BN-ciz, saltón).

testuetan arrotzak diren bertze hauek ditugu: *degu* (Apeza *degu*), *deitzen dek*, eta *-ikan: Noranayek zer erranikan*.

Hurrengo lerrootan kantak banan bana aztertutuko ditugu:

2.1. Lehenengo kantan (*Goizean goizik*) interesgarria da azpimarratzea iparraldeko haranekin, zehazki Baigorriekin, duten lotura kanta hauetan hainbat aldiz ateratzen zaiguna. *Baigorri* agertzen da honetan, eta baita ere guardien bildurra, ziurrenik muga zaintzen zutenak, “bihotzaren galgarri” aipatzen baitu. Dударик gabe, gaueko lanak eta partzuergoan izandako lurrek harreman hau sendotu zuten, Saraguetak (1981) dioskunez, eta neronek (Ibarra 2000) azpimarratu dudanez.

Iruzkin linguistikoari dagokionez: *Atera zekidan* (nor-nori) aditza lehen aldiko forma suertatzen da azpimarragarri *-Tza-* morfemaren ordez, *-ki-* erabiltzen baita, Erroibarren eta Esteribarren ohi den bezala.

2. Bigarren kanta “*Ogi zerutik*” da; egun mezan kantatzen den abestia dugu, mundu guztiak dakiena. Gaur letra berarekin kantatzen da eta nik dakidanez, klasikoa da elizako euskal kantutegian. Hori dela eta ez du hemengo ezaugarri berezirik.

3. Hirugarren kanta “*Orai kanta berriak*” elizakoa da. Ibar honetako aldaerak agertzen zaizkigu: *paratu, orai, lemesikoa, guti, erratera, igan, jautsi, gorretan* (g-dun aldaera duena hitz hasierako aditz laguntzaileetan). Baita *zerurat* ere ageri da, *-rat* morfemarekin, ekialdeko hizkeretan agertzen dena.

Nahi duena erratera egitura dugu *-tzera* nominalizazioarekin Nafarroako hainbat tokitan ohi den bezala.

4. Laugarren kantak (*Gizon abila dute*) Mezkitzen izandako izurritea gogoratzen du. Hartaz salbatzeko santuaren errelikia ekarri zen eta orduan hasi zen izurritea gibelertzen. Hori dela eta, egun San Sebastian da gure herriko bigarren patroia. Kantak dioenez, guardiak jarri zituzten ondoko Artzibarretik izurritea pasa ez zedin eta baita Erroibarko gainerako herrietatik ez zedin hurbil. Hain zuzen ere, egun ezagutzen dugun San Paul mendiaren ondoan kokatu ziren, Artzibarren Luzarreta¹³ ondoan, 80 urteko gizon adintsu bat paratu omen zuten zaindari eta, horrela dio: *pestea aisa joanen da haren istapetik!* Dirudienez, ez zuten konfidantza handirik izaneren berak nola zaintzen zuten muga.

Bertzaldetik, ez da harrigarria ondoko ibarra, Artzibar, aipatzea. Egun ere, Artzibar inguruan dagoen hemengo toponimo bati *Asiber* erraten zaio. Bi ibar hauen arteko harremana estua izan da mendeetan zehar: mendiz hurbil dira eta ezkon harremanak estuak eta hurbilak, aitzineko lanetan erakutsi dugunez (cf. Ibarra: 2002). Hori dela eta, ez da harrigarria, harreman horren isla kanta honetan ikustea.

Ezaugarri linguistikoei dagokienez: lexiko arloan, azpimarragarria da *Istapea*: hanken azpia (= izter + -pe), eta baita zuhaitzetik bi adar ateratzen direnean horrek egiten duen gurutzeta. *Aisa*: erraz. *Fier*: azkar, tinko, frantsesaren mailegua dena, arrunta ibar honetan. *Igorri* (= bidali)

5. Borzgarren kantak (*Apeza degu*) erakusten digu nolako poza eta askatasuna sentitzen zuten apaizarik gabe, alegia, honek alde egiterakoan nola disfrutatzen zuten.

13. Horrela agertzen da idatzia, nahiz eta egun *Lusarreta* ahoskatzen den.

Londresera joan den bitartean dantzak eta bazkariez gozaten ari direla erakusten digu kanta honek. Nolanahi dela ere, gero munduan penatu eta sufritu beharra argi adierazten du: *ai, oi, penetan bizi naiz mundu honetan!*

Iruzkun linguistikoa aipagarria da osagarri zuzena genitiboaren erabilpena: *sendabelarren ekartzen*, eremu honetan betetzen dena, nahiz erabat ez den sistematikoa. Lexikoa: *kapon* dugu *-on* bukaerarekin, hemen ohikoa den bezala, eta *ez*, *-oi*-rekin. Bertzaldetik, *degu* aditzaren aldaera ez da hemengo inondik inora, eta Azkueren uki-tua islatzen du seguraski.

6. Seigarren kanta (*Etzite yin*) kostunbrista da eta herriko ohiturak eta usadioak ditu mintzagai. Gurasoak zertan ari diren erraten digu: aitatamak, anai-arrebak aziendekin, eta pilotariak jolasten, bera bakarrik egonen dela dioen bitartean.

Iruzkun linguistikoa *Jin* (= etorri) aldaera erabiltzen zela badakigu, igurzkari sa-baikariz ahoskatua, nahiz gero azken garaiotan *joan*-ek erabat ordezkatu duen. Horrezaz gain, *zato*, *aitatamak*, *bertze*, *aurrideak*, *egoin naiz* hemengo aldaerak agertzen dira.

Aditzetan geroaldia egiteko: *egoin* aldaera (*-n-z* bukaturiko aditzei *-en* bukaera lotzerakoan), ageri da, hemengo berezkoa dena.

Morfologian *-eki* morfema nabarmentzen da, eta *Partzuer nuzu* (= partzuegoa da) aldaera ageri da.

7. Zazpigarren kanta (*Nornayek zer*), lehenengoan bezelaxe, iparraldeko herriekin izan den harreman estua erakusten du, *Bidarraitarra* dela erraten baitigu. Honek azpimarratzen du historikoki izan den harremana, kasu honetan (Baigorri-Orzaize eremuarekin). Mugaz bi aldeetako harreman hau ibar honetako hainbat etxe-izenetan ere agertzen da. *Zibur*, *Monyelos* Erroibarko oikonimoak dira, eta Lapurdiko nahiz Nafarroa Behereko herrien izenak ere, hurrenez hurren.

Iruzkun linguistikoari dagokionez, lexikoa *samurtu* 'haserretu' hitza ageri da, Nafarroa Beherean eta hemen erabili izan dena. *Samurtu*-ren geroaldia egiteko *-ko*-ren orde *-ren* erabiltzeak ekialdeko hizkerek lotzen du.

Bertzaldetik, hemengoak diren gainerako aldaerak hauek dira: *enekin*, *bortz*, *aurride*, *erran*, *nornai*, *segurki*, *oro*.

Baina, *-ikan* atzizkia, ez da hemengoa, eta horretan, Azkueren eskua nahiz erdialdeko eragina ikusten ahal da.

8. Zortzigarren kanta (*Oilo eta oilasko*) bazkarien gozotasunaz mintzo da. Aipagarria da lexikoa, *amen* (= gosaria) hemengo hitza dena.

9. Bederatzigarren kanta (*Zorabiatua naiz*). *-rat* morfema agertzen da: *begietarat*, baita *esposatu*, *espostu* Erroibarko aldaera dena, azkenik *zan* aditz laguntzailea (= zen) ageri da. Aldaera hau errimatzeko egina dateke.

10. Hamargarren kanta, onomatopeiak ditugu Azkueren eranskinean hitz honen argibidea dator: *Burdu*: cf. Burdun. *Burdun-burdun*: saltón (BN-ciz, saltón). Itzulpena bertan dator eta oso interesgarria da iradokitzen duen lexiko arkaikoarengatik, era berean, iparraldeko isuria erakusten duena.

Ondorioa

Hauek dira, bada, aurkituriko hamar kantak. Batzuek herriko ohiturak, algarak, bazkarien gozotasuna, gertakizunak, denbora-pasak etabar islatzen dituzte. Bertze bat erlijiosoa da, elizan egun kantatzen den horietakoa. Denek erakusten dute –gehiago edo gutxiago– herri ttiki honetako euskararen nolakotasuna, nahiz Azkuek moldaketa txiki batzuk egin zituen, bertakoak ez direnak. Azkenik, kanta hauen bidez, eguneroko bizitzaren bertze alor batzuk ikusten ahal ditugu; horien artean, iparraldeko nahiz ondoko Artzibarko herriein dagoen lotura estua, lehenago ere berretsi genuena.

Bibliografia

- ARTOLA, K. (1992), “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua dela-ta (Hurbiltze-saiakerak)”, *FLV* 60, 187-227.
- AZKUE, R.M. (1969 [1905]), *Diccionario Vasco-Español-Francés*, La gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, bi ale.
- CAMINO, I. (1990), “Euskalki batzu hiltzorian”, *Argia* 1990/ I / 14, 1275 zbk, 19-26.
- (1991), “Aezkerazko testuak II: Orbarako dotrinak”, *ASJU* 25-3, 929-960.
- (1997), *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- (arg.) (1998a), *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldi-tako Agiriak*, Udako Euskal Unibertsitatea.
- (2003), *Hego-nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua.
- ECHAIDE, A.M. (1966), “Regresión del vascuence en el valle de Esteribar, Navarra”, *Problemas de la Prehistoria y de la Etnología vascas*, Pamplona, 257-259.
- (1976), “Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de “l” y de “n” debidas al contexto fónico en los dialectos vascos (...)”, *FLV* XXIII, 163-169.
- EUSKALTZAINDIA (1992), *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, Agiriak 1991-X- 21/25, Bilbo, Iker 7.
- IBARRA, O. (1991), “Mezquirizko toponimiaz”, *FLV* 58, 301-357.
- (1995), *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- (1997a), “Erroko testu argitaragabe bat eta beste batzuen iruzkina”, *FLV* 75, 265-282.
- (1997b), *Valle de Erro. Historia, lengua y costumbres*, Nafarroako Gobernua, Caja Rural de Navarra.
- (2000), *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- (2002), “Erroibarko onomastikaz ohar batzuk”, *Huarte de San Juan* 6, 21-44.
- (2006), *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*, Euskaltzaindia, Nafarroako Gobernua, Mendaur bilduma 4.
- MITXELENA, K. (1964), *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Donostia.
- (1976a), “Acentuación alto-navarra”, *FLV* 23 , 147-162.

- (1977), *Fonética histórica vasca [FHV]*, 2º ed. corregida y aumentada.
- PICABEA, M.L. (1985), “Expresiones temporales en el habla coloquial del valle de Erro”, *Euskera XXX* (2. aldia), 227-232.
- SARAGÜETA, P. (1979a), “Trinidad Urtasun, Bertsolaria (1894-1978)”, *FLV* 32, 333-338.
- (1979b), “Nere oroimenak”, *FLV* 31, 171-175.
- (1981), “Mezkiritz (Erroibar)”, *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, nº 3, 5-36, Príncipe de Viana, Pamplona.
- SATRUSTEGUI, J.M. (1985), “Perpetua Saragueta anderearen euskal ipuiak”, *Egan*, Vol. XLIII, 131-139.
- (1987), *Euskal testu zaharrak*, Euskaltzaindia, Iruñea.
- SHOUTEN, M.E.H. y REENE, P.TH. van (ed.) (1989), *New Methods in Dialectology*, Publications in language sciences, Foris Publications.